

LAGUNTZA-PRODUKTUAK: OHE ARTIKULATUA, GURPIL-AULKIA, AUDIFONOA...

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomia izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa](#).

Norentzat

Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak.

Kostua

Koordainketaren mende dagoen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta produktuaren arabera.

Baldintzak

Desgaitasuna edo **mendekotasuna** egiaztatzea.

Errolda (12 hilabete).

Adin-mugarik gabe (salbuespenekin).

Zertan datza?

Zerbitzu honek laguntza ekonomikoak ematen ditu, edo desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen autonomia pertsonala hobetzeko balio duten laguntza-produktuak eskaintzen ditu ([2.7.2.2 fitxa](#)) Helburu horrekin, dauden laguntza-produktuei buruzko orientazioa ematen du, produktu horietarako sarbidea errazten du, bai eta horien erabilerari buruzko oinarritzko entrenamendua ere. Laguntza-produktutzat (edo laguntza teknikotzat) hartzen da mugak arintzen edo ezabatzen dituen tresna edo sistema tekniko oro. Ohe artikulatuak, dutxarako aulkiak, mobilizaziorako garabiak, gurpil-aulkiak, entzumen-protesiak, pertsonen arteko komunika gailuak, komunikaziorako gailu informatikoak eta abar izan daitezke. Laguntza teknikoak (laguntza-

produktuak) honako hauek izan daitezke:

- a. Berreskuragarriak, onuradun batek baino gehiagok erabili ahal dituztenean; kasu horietan, mailegu bat egiten da;
- b. Berreskuraezinak, pertsona bakar batek erabil ditzakeenean; kasu horretan, laguntza ekonomiko bat ematen da horiek erosteko.

Laguntza berreskuragarrietarako, zerbitzu hau dago, eta berreskuratu ezin direnetarako, [laguntza-produktuak erosteko laguntza](#). Zerbitzua etxean zein egoitzetan eskaintzen da.

Norentzat?

% 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak, edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta produktu motaren arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

desgaitasuna =>%33 eta/edo mendekotasuna onartua izatea.

Adin-mugarik gabe, entzuteko protesiak izan ezik (16 urte edo gehiago).

Aurreko 12 hilabeteetan EAEn erroldatuta egon izana.

Azken 6 urteetan kontzeptu beragatik diru-laguntzarik jaso ez izana (salbuespenak salbuespen).

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Laguntza-produktuen zerbitzua Araban](#)
- [Laguntza-produktuen zerbitzua Bizkaian](#)
- [Laguntza-produktuen zerbitzua Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)